

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, Diputatuen Kontseiluarena, otsailaren 1ekoa. Onespena ematea energiaren arloko premiazko neurriei eta bestelako zerga neurriei.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Itun Ekonomikoa onetsi zuen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 23 quater, 26. eta 33. artikuluek xedatzen dute, batetik, zerga itunduak direla energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, eta, bestetik, Estatuak aldi bakoitzean xedatzen dituen funtsezko arau substantibo eta formal berak aplikatuko zaizkiela.

2021eko abenduaren 21ean, abenduaren 21eko 29/2021 Errege Lege Dekretua onetsi zen, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira energiaren arloan mugikortasun elektrikoa, autokontsumoa eta energia berriztagarrien hedapena sustatzeko.

Errege lege dekretu horretan hainbat neurri ezartzen dira elektrizitatearen eta gas naturalaren kostuak murrizteko azken fakturan. Besteak beste, sektore elektrikoko zenbait zerga neurriren indarraldia luzatzen da.

Lehenik eta behin, 2022ko lehen hiruhilekora luzatzen da energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren aldi baterako etenaldia.

Elektrizitatearen handizkako prezioak ohi baino handiagoak izango direnez 2022ko lehen hiruhilekoan ere, egokitzat jotzen da neurri hori aldi horretan luzatzea, eta, beraz, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga etenda geratzen da 2022ko ekitaldiko lehen hiruhilekoan.

Bigarrenik, salbuespen gisa eta aldi baterako, 2022ko apirilaren 30era arte, balio erantsiaren gaineko zergaren (aurrerantzean BEZa) ehuneko 10eko tasa murriztua aplikatzen jarraituko da. Tasa murriztua faktura elektrikoaren osagai guztiei aplikatuko zaie 10 kW-ko potentzia finkoa gaintitzen ez duten kontratuetan, baldin eta fakturazioaren aurreko hilean handizkako merkatuaren hileko batez besteko prezioa 45 €/ MWh-tik gorakoa izan bada eta elektrizitate horniduraren kontratuaren titularra bonu sozialaren onuraduna bada eta, gainera, aitortuta badu kalteberatasun larria edo kalteberatasun larria eta gizarte bazterkeria jasateko arriskua.

Eta, hirugarrenik, egokitzat jotzen da produktu energetikoak eta elektrizitatekoak ezartzeko Batasuneko araubidea berregituratzen duen Kontseiluaren 2003ko urriaren 27ko 2003/96/EE Zuzentarauak eskatutako gutxieneko zerga tasak aplikatzea elektrizitatearen gaineko zerga berezian 2022ko lehen lauhilekoan. Horiek horrela, gutxieneko karga ehuneko 0,5ekoa izango da 2022ko apirilaren 30era arte.

Gainera, pandemia luzatzearen ondorioz biztanleriak, oro har, maskarak erabili behar dituela kontuan hartuta, BEZaren zerga tasaren ehuneko 4 aplikatuko zaie erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen Batasunaren barruko entregei, inportazioei eta erosketei, orain arte bezala eta 2022ko ekainaren 30era arte.

Era berean, COVID-19ari aurre egiteko osasun materialaren Batasunaren barruko entregei, inportazioei eta erosketei BEZaren ehuneko zero ko tasa aplikatuko zaie, orain arte bezala eta 2022ko ekainaren 30era arte, baldin eta hartzaileak erakunde publikoak, irabazteko xederik gabekoak eta ospitaleak badira. Horrela, osasun sistema pandemia eta COVID-19aren aldaera berriak kontrolatzen jarraitzeko gauza izango dela bermatuko da.

Bestalde, berriki onetsi da 22/2021 Legea, abenduaren 28koa, Estatuaren 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Lege horrek, besteak beste, aldaketak sartzen ditu balio erantsiaren gaineko zergan, eta 2022ko zergaldirako luzatzen ditu araubide erraztuan eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezian aplikatzeko mugak, eta ehuneko 3,75eko berandutze interesa ezartzen du.

Azkenik, zehazten da ondasunen urrutiko salmentarako eta ondasun emate nazional batzuetarako araututako leihatila bakarreko araubide berezietan dagokien balio erantsiaren gaineko zerga ordainaraztea Arabako Foru Aldundiari dagokiola, baldin eta eskumena badu ikuskatzeko zerga aplikatzen den lurraldean kokatuta dauden, araubide horiek aplikatzea erabaki duten eta Espainia identifikazioko estatu kide izendatu duten enpresaburuak edo profesionalak.

Hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urrutiko salmentei aplikatu beharreko araubide berezian bitartekari bat izendatu bada ere, Arabako Foru Aldundiari dagokio zerga ordainaraztea, baldin eta izendatutako bitartekarien ikuskapena egiteko eskumena badu.

Ekonomia Itunaren 23 quater, 26. eta 33. artikuluetan ezarritakoa bete behar denez, beharrezkoa da zerga premiazko araugintza dekretu honen bidez aipatutako zerga arloko aldaketak Arabako Lurralde Historikoko araudian sartzea, hura eguneratzeko.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako txostena aztertu da.

Horregatik, lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hona hau

## XEDATZEN DUT

### 1. artikulua. Zerga neurriak luzatzea.

1. Bi zerga tasaren aplikazioa 2022ko apirilaren 30era arte luzatzea. Hain zuzen ere, batetik, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 10eko zerga tasa aplikatzea, energia elektrikoaren Batasunaren barruko entreegi, inportazioei eta erosketei. Zerga tasa horren aplikazioa aurreikusita dago Energia Fiskalitatearen Arloan Zerga Neurriak onesten dituen uztailaren 6ko 6/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 1. artikuluan. Bestetik, elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren ehuneko 0,5eko zerga tasa aplikatzea. Zerga tasa horren aplikazioa ezartzen du azaroaren 2ko 7/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak. Dekretu horrek Arabako zerga araudia egokitzen du ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan egindako aldaketetara eta premiazko neurriak ezartzen ditu energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren eta elektrizitatearen gaineko zergaren inguruan.

2. Bi zerga tasaren aplikazioa 2022ko ekainaren 30era arte luzatzea. Hain zuzen ere, batetik, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 4ko zerga tasa aplikatzea Sendagaien Prezioen Ministerio Arloko Batzordearen 2020ko azaroaren 12ko Akordioan aipatzen diren erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen Batasunaren barruko entreegi, inportazioei eta erosketei. Zerga tasa horren aplikazioa jasota dago COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzeko 2021erako zerga neurriak onesten

dituen abenduaren 1eko 14/2020 Zerga Premiazko Dekretu Arauemailearen 24. artikuluan. Bestetik, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko zerga tasa aplikatzea, ekainaren 8ko 4/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren eranskinean aipatutako Batasunaren barruko ondasun entregei, inportazioei eta erosketei. Zerga tasa horren aplikazioa jasota dago aipatutako zerga premiazko araugintzako dekretu horren 2. artikuluan. Dekretu horrek honako bi hauen transposizioa egiten du: Kontseiluaren 2017/2455 (EB) Zuzentaraua, 2017ko abenduaren 5ekoa, 2006/112/EE Zuzentaraua eta 2009/132/EE Zuzentaraua aldatzen dituen, zerbitzuak emateko eta urrutiko salmentetarako balio erantsiaren gaineko zergaren betebeharrak jakin batzuei dagokienez, eta Kontseiluaren 2019/1995 (EB) Zuzentaraua, 2019ko azaroaren 21ekoa, aldatzen duena 2006/112/EE Zuzentaraua, ondasunen urruneko salmentari eta ondasunen entrega nazional batzuei buruzko xedapenei dagokienez.

2. artikulua. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren 2022ko ekitaldiko zerga oinarria eta ordainketa zatikatuen zenbatekoak.

1. 2022ko ekitaldian hau izango da energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga oinarria: instalazio bakoitzean zergaldian ekoitzi eta sistema elektrikoan sartutako energia elektrikoagatik (zentral barretan neurtuta) zergadunak jaso beharreko guztirako zenbatekoa, sisteman lehenengo hiruhileko naturalean sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak kenduta.

Ordainketa zatikatuak kalkulatzeko, zergaldiaren hasieratik urteko hiru, sei, bederatzi edo hamabi hilabeteak amaitu arte ekoiztutako energia elektrikoaren ekoizpen balioa hartuko da kontuan (zentral barretan neurtuta), lehenengo hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak kenduta, eta Jasangarritasun Energetikorako Neurri Fiskalei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legearen 8. artikuluan aurreikusitako zerga tasa aplikatuta, eta alde zuzenetik egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoa kenduta.

2. Sistemaren oreka bermatzeko, aurreko apartatuan aurreikusitako neurriaren ondorioz dirubilletaren kopuruan izandako murrizketaren baliokidea den zenbatekoa konpentsatuko zaio sistema elektrikoari.

3. artikulua. Araubide erraztua eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezia aplikatzeko mugak 2022ko ekitaldian.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren hamalagarren xedapen iragankorra aldatzen da, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta indarraldi mugagabearekin. Xedapen horrek honako testu hau izango du:

“Hamalagarrena: Araubide erraztua eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezia aplikatzeko mugak 2016tik 2022ra arteko ekitaldietan.

2016ko, 2017ko, 2018ko, 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko ekitaldietarako, arau honetako 122. artikuluko bigarren apartatuko 2. eta 3. zenbakietako lehenengo marran eta 124. artikuluko bigarren apartatuko 6. zenbakian ezartzen den magnitudea, 150.000 euro, hemendik aurrera 250.000 euro izango da”.

4. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arauemailea aldatzea.

Aldaketa hauek egiten dira, eta 2021eko uztailaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

Bat. 2 bis artikuluari Hamar apartatua eransten zaio. Apartatu horrek honako testu hau izango du:

“Hamar. Honako hauei aplikatuko zaie araubide berezia: egoitza Batasunean (kontsumo estatua ez beste batean) duten enpresaburuek eta profesionalak ez enpresaburu ez profesional ez diren hartzaileei, hala dihardutenei, egiten dizkieten zerbitzuei; Batasunaren barruko ondasunen urrutiko salmentei eta interfaze digital baten bidez emandako ondasunen barne entrega jakin batzuei, eta hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urrutiko salmentei. Horiek guztiak arau honen XI. kapituluko IX. tituluaren daude jasota, eta araubide berezi horren zerga ordainaraztea Arabako Foru Aldundiari dagokio, baldin eta eskumena badu ikuskatzeko zerga aplikatzen den lurraldean kokatuta dauden, araubide horiek aplikatzea erabaki duten eta Espainia identifikazioko estatu kide izendatu duten enpresaburuak edo profesionalak, bat etorritz arau honen 167. artikulua Zazpi apartatua ezarritako arauekin.

Hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urrutiko salmentei aplikatu beharreko araubide berezian bitartekari bat izendatu bada ere, Arabako Foru Aldundiari dagokio zerga ordainaraztea, baldin eta izendatutako bitartekarien ikuskapena egiteko eskumena badu, arau honen 167. artikulua Zazpi apartatua ezarritako arauen arabera”.

Bi. Bost apartatuaren ondoren, Sei apartatua eransten da 167. artikuluan, eta oraingo Sei, Zazpi eta Zortzi apartatuak Zazpi, Zortzi eta Bederatzi izango dira, hurrenez hurren. Apartatu erantsiak honako eduki hau izango du:

“Sei. Bat etorritz arau honen 2 bis artikuluko Hamar apartatua xedatutakoarekin, zerga ordainaraztea Arabako Foru Aldundiari dagokionean, apartatu horretan aipatzen diren eta araubide bereziak aplikatzea erabaki duten enpresaburuek eta profesionalak araubide horietatik eratoritzen diren betebeharrak formal eta materialak aldundiaren aurrean bete beharko dituzte”.

5. artikulua. Berandutze interesak.

Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. artikuluko 6. apartatua aipatzen duen berandutze interesen tasa ehuneko 3,75 izango da 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Bigarrena. Gaitzea.

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Gasteiz, 2022ko xx(a)ren xx(a). Diputatu nagusia, RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE. Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, ITZIAR GONZALO DE ZUAZO, Ogasun zuzendaria, M<sup>a</sup> JOSÉ PEREA URTEAGA.